

Lehendakariak 2013-2014 ikasturtea ireki du MUn

2013/09/18

Hezkuntzako eta erakundeetako ordezkari asko elkartu ziren Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitateak egindako ekitaldian, bertan hasiera emateko 2013-2014 ikasturteari. Euskadiko lehendakaria eta Hezkuntzako sailburuarekin batera, EHUko eta Deustuko unibertsitateetako errektoreak izan ziren, baita Ignacio Lakunza, Jabier Retegi eta Iñaxio Oliveri MUko errektore ohiak, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria eta Lohitzune Txarola Gipuzkoako Batzar Nagusietako burua, eta Debagoieneko zenbait alkate eta alderditako ordezkariak.

- Argazki bilduma.

Idoia Peñakoba MUko idazkari nagusiak azaldu zuen iaz 15 karrera eman zituela MUK, denak gradukoak, eta guztira unibertsitateak 4.011 ikasle izan zituela. **Mariam Bilbatua** HUHEZIKo irakasleak egin zuen hitzaldi akademikoa: "Hezkuntza kalitatea eta hezkuntza erronkak".

Iosu zabala MUko errektoreak hiru karrera berri aipatu zituen, aurten MUK emango dituen, baita Aretxabaletako campusaren inaugurazioa eta Bilbao Berrikuntza Faktoria, irailean hasiko dena lanean. Azpimarratu zituen, halaber, unibertsitateak euskal gizartean duen eginkizun berritzailea eta eraldatzailea, gaineratuta ikerkuntzari eta transferentziari lotutako proiektuek MUren sarreren %50 ekartzen dutela.

Iñigo Urkullu lehendakariak Jose Migel Barandiaran jakintsua ekarri zuen gogora, "ez gara geure baitakoak" esaldia aipatuta, alegia, ez garela bakartuta bizi. Goraipatu egin zuen MUren bilakaera azken urteotan, eta amaitu aurretik azpimarratu zuen Eusko Jaurlaritzak programa bat duela lana bilatzen laguntzeko 20.000 gazteri.

